

DIRU SARRERAK

Pawsome rescue proiektua pertsona eta animaliei laguntzeko pentsatu genuen, hori dela eta, produktua doan izango da guztientzat baina maskoten zaintza eta segurtasun ona bermatuko duen profil egiaztatua izateko (benetakoa dela profila ziurtatzeko, txertoak eman ahal dituen egiaztatzeke,...) diru kantitate txiki bat ordaindu beharko da, finkoa izango dena. Ordaindu beharreko kantitatea aldi batean egingo da.

Azken puntu honen harira, kreditu edo zordunketa-txartelekin (VISA, Mastercard, Maestro, American Express,... etab), PayPal (APP-a), Bizum (APP-a), Klarna (APP-a), Scalaplay (APP-a), Google Pay (APP-a) eta beste ordainketa-bide erabili ahalko dituzte.

Publizitateari dagokionez, argitalpenen artean iragarki bat aterako da baina iragarkiak ez dute APP-aren erabilera zailduko. Gainera, iragazkia egongo da iragarki mota guztiak ez egoteko, arau konkretu batzuk errespetatu beharko dituzte (pertsonen duintasuna bermatuko da, adibidez).

Azkenik, patrozinatzaile bat aurkitzea gustatuko litzaiguke Kiwokoren tankerakoa. Kiwokoko produktuak publizitatuko ditugu diru kantitate baten ordeztan, Kiwokoko produktuetan QR bat agertuko da gure aplikaziora birbideratuko duena.

Gainera, segurtasun publikoa bermatzea gure helburuetako bat denez, gobernuko finantziazioa lortzen saiatuko gara.